

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak, Errioxak eta Aragoik zenbait arlotan lankidetzaren sendotzea erabaki dute "aurrerabide eta garapeneko etorkizunerantz" elkarrekin bidea egiteko

Barcina-k, Sanz-ek eta Rudi-k konpromisoa hartu dute "azpiegituren arloan jarduerak sustatzeko errepideko eta treneko loturak hobetze aldera"

Miércoles, 13 de junio de 2012

Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko lehendakari Barcina, Pedro Sanz eta Luisa Fernanda Rudi-k, hurrenez hurren, hiru erkidegoen arteko [lankidetzako adierazpen orokorra](#) sinatu dute gaur Fontellasko [El Bocal-en](#) (Nafarroa). Adierazpen horretan jasotzen da "ibilbide autonomikoaren lehen unetik izandako harremanak bereizgarri egin duten lankidetzaren-espirituari eustea ez ezik, espiritu hori handitzeko berriazko borondatea".



Ezkerretik eskuinera: Sanz, Barcina eta Rudi lehendakariak El Bocal-en lankidetzako adierazpen orokorra sinatu ondoren.

Hori guztia, lurralde horietako herritarren mesedetan programak eta proiektuak egiteko ahalegina handitzeko xedearekin, elkarrekin bidea eginez "aurrerabide eta garapeneko etorkizunerantz". Lankidetzaren bide hori "lankidetzaren, leialtasun, eraginkortasun eta zerbitzu"-aren printzipioetan oinarritzen da, eta bere fruituak eman ditu hiru erkidegoetako herritarrei ematen zaizkien zerbitzuak hobetuz.

Alde horretatik, Yolanda Barcinak adierazi duenez, testu horrek balioko du ekintza komunak "koordinazio handiagoarekin" sustatzeko eta "herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko". Nafarroako Lehendakariak, azpimarratu duena 1984ko ekainaren 26an hiru komunitateetako hiru lehendakariak leku horretan bertan bildu zirela, azaldu du akordioak hiru lankidetzaren ezartzen dituela hiru arlotan: kultura eta turismoa, Santiago Bidearekin; nekazaritzako elikagaien sektorea, "beste batzuk baino hobeto eusten ari zaiona egoera ekonomiko zail honi", Barcinaren aburuz; eta azpiegiturak, hiru erkidegoen arteko loturak bereziki.

Bestalde, Pedro Sanz-ek akordioaren izaera historikoa azpimarratu du eta "Ebroko ibarrari egindako aitortzaren mugarri" gisa definitu du, eta hari lotzen zaizkion elementu komunak ditugu, nekazaritzako elikagaien sektorea eta [Campus Iberus](#) proiektua, esaterako. Proiektu horren gainean

Errioxako lehendakariak adierazi du ikerketa eta berrikuntza sustatuko dituela, "garrantzi handiko" zerbait egungo testuinguru ekonomikoan.

Azkenik, Luisa Fernanda Rudi-k aipatu du gaur sinatutako akordioa "erantzukizunaren erakusgarri" dela gure eskumenen barnean lankidetzak bilatzeko herritarren eta enpresen mesedetan. Aragoiko lehendakariak ere adierazi du Ebro ibarreko ahalmen ekonomikoa "oso garrantzitsua" dela eta beharrezkoa dela hura garatzea bere zabaltasun guztian.

Hiru lehendakariak izan duten bilkuran honako hauek ere parte hartu dute: Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismoa eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniáin-ek; Errioxako Gobernuako Lehendakariak eta Justiziako kontseilari Emilio del Río-k eta Aragoiko Gobernuako Lehendakariak eta Justiziako kontseilari Roberto Bermúdez-ek.

Lankidetzak hiru arlotan

Gaur goizean sinatutako adierazpenak oinarriak finkatzen ditu hiru arlotan lankidetzak espezifikotarako mekanismoak ezartzeko: azpiegiturak, nekazaritza eta abeltzaintza; eta kultura eta turismoa.

Azpiegituren arloan, testuak honako honen beharra islatzen du: "Ebroko ibarrak epe labur, ertain eta luzean komunikazioen azpiegiturak izatea, eta euskarri izango direnak jardueraren hazkundean eta bertako herritarren eta ekoizpen-sektoreen mugikortasun-eskarrietan". Horri dagokionez, eskatzen da komunikazio-azpiegiturak kontuan har daitezela "kontzepturik zabalenean –errepidez nahiz trenez– eta ez soilik Ebro ibarreko eremu geografikoari lotuta, baita interes sozio-ekonomiko bereziko gune geografikoari lotuta ere: gune mediterraneoari, penintsula erdiari eta Frantzia nahiz Europarekin dauden loturei, esaterako.

Hori dela eta, administrazio-sinatzaileek "errepidez eta trenbidez lotzeko beharrezkoak diren nahi adina ekintza egiteko eta sustatzeko konpromisoa hartu dute; ekintza horiek izango dira Ebroko ibarra bere garapen-esparruarekin lotzen dutenak, eta baita beste eremu geografikoekin eta jardura ekonomikoko beste eremu batzuekin erlazionatzen eta lotzen dituztenak ere. Izan ere, horren mende geratzen da maila batean gure gune geografikoaren lehiakortasuna eta Ebroko ibarrean ezarriko diren egungo eta etorkizuneko enpresa-ekimenei emango zaien bultzada".

I+G+Bko proiektuak sustatzea

Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako atalean, hiru gobernuek lankidetzak-formulak bilatzeko konpromisoa hartzen dute I+G+B proiektuak sustatzeko nekazaritza, elikagaien nekazaritza eta elikagaien ez diren nekazaritzaren industrian. Jatorri-deiturek babestutako produktuak sustatzearen alde egiten dute ere eta sustapenari lotutako jarduerak koordinatzearen alde elikagaiei buruzko azoken edo antzeko ekitaldien bidez.

Gainera, koordinazioa eta informazioa handitzearen aldeko apustua egiten dute osasun-jardunbideei dagokienez indarra hartzen ari diren edo berriz indarra hartzen ari diren gaixotasunen aurrean; sektoreari emandako laguntzen kudeaketan lankidetzak-mekanismoak ezartzea; lurraldeen arteko lankidetzak sendotzea landa-garapeneko proiektuetan; eta informazioa nahiz irizpideen arteko trukea sustatzea urreztatzeak modernizatze arloan egindako jardueren gainean.

Santiago bidea sustatzea

Kultura eta turismoaren arlori dagokienez, gaur onartutako adierazpenak ondorengoa jasotzen du: hiru erkidegoentzako kultur proiektu komunak aztertze asmoa esperientzien trukea eta lan-metodologiak sustatzen lagunduko dutenak. Era berean, guztien arteko lankidetzak jasotzen da naturari lotutako produktu



Ezkerretik eskuinera: Sánchez de Muniáin kontseilaria, del Río kontseilaria, Sanz lehendakaria, Barcina Lehendakaria, Rudi lehendakaria eta Bermúdez kontseilaria, bilkuran.

tipiko zehatzak abian jarri eta sustatzeko, hiru erkidegoen naturguneak hartuko dituen ibilbideak, zirkuituak eta bideak sustatuz.

Santiago bideari dagokionez, estatuko eta autonomien arteko lankidetzaz-fase ezberdinak elkarrekin sustatuko dira Santiago bideari dagozkion zenbait jardueretan. Halaber, lankidetzaz sustatuko da Santiago bideko Kontseiluaren arloan, koordinazioa areagotuko da hiru administrazioen artean adostutako ekintzak garatzeko Tunespaña-n nahiz Santiago bideko gainerako erkidegoetan, eta Frantziako Santiago bideko zabalkundea indartuko da.

Azkenik, hiru gobernuek beren lurraldeetan egingo diren turismo-ekitaldiak sustatu eta zabaltzea adostu dute, horretarako turismo-agentzia komuna eta barne-mugimenduak sortuz; turismo-ekitaldien informazio, dibulgazio eta lankidetzaz instituzionaleko ekintzak areagotzea; eta arriskuko turismoaren, abenturako eta kiroletako turismoaren arloan esperientzien trukea eta jardunbide egokiak sustatzea.

Galería de fotos



Nafarroa, Errioxa eta Aragoiko lehendakariak El Bocal-eko Carlos V jauregiaren paretik paseatzen.